

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Atal honetan negozio eredu batek funtziona dezan behar diren aktibo garrantzitsuenak deskribatzen dira.

Negozio eredu guztiek funtsezko baliabide batzuk behar dituzte balio proposamena sortu eta eskaintzeko, merkatuetara iristeko, merkatuko segmentuekin harremanak ezartzeko eta sarrerak sortzeko. Negozio eredu bakoitzak funtsezko baliabide desberdin batzuk beharko ditu. Mikrotxipak egiten dituen enpresa batek kapital asko beharko du ekoizpenerako instalakuntzak behar baititu; mikrotxipak diseinatzen dituenak, berriz, giza baliabideekiko mendekotasun handiagoa izango du.

Funtsezko baliabideak fisikoak, finantzarioak, intelektualak edo giza-baliabideak izan daitezke. Eta hauek jabetzan edo alokairuan izan ditzake, edo funtsezko bazkide bati esker lortu.

## Baliabide fisikoak

Gure kasuan ez degu lokal bat beharko, bi astetan behin herriz herri joango garelako gure pultserak ezagutarazteko. Karpa bat erosi beharko dugu gure bezeroekin harremanetan jartzeko. Karpak 3x3 metro karratu neurtuko du eta 76,99€ ordainduko dugu horregatik. Hortaz gain, mahai bat erosiko dugu 39,90€-an eta horrekin batera bost aulki erosiko ditugu 7,87€-tan.



tectake Carpa  
3x3m con 3 paneles  
laterales - blanco ...

**76,99 €**

[Makro.es](https://www.makro.es)

Envío gratuito




Silla con Brazos  
Rayas

**7,87 €**

[Solycarpa](https://www.solycarpa.com)

Envío gratuito



Mesa Resina  
Plegable  
Rectangular 180  
x 74 x 74 cm...

**39,90 €**

[Carrefour.es](https://www.carrefour.es)

+3,50 € de ga...

## Baliabide intelektualak

Gure enpresa osatzeko, baliabide intelektualak behar ditugu. Honek erreferentzia egiten dio guk kontratatutako enpresaren ingenerioek egingo duten lanari. Langile hauek sortuko dute gure pultseraren chiparen softwera. Ingeriero hauek AVNET enpresan lanean arituko dira eta haiekin harremanetan jarriko gara aipatutako chip-a sortzeko helburuarekin. Gainera, komenigarria izango litzateke hori patentatzea edo erregistratzea, horretarako proposatu dugun aurrekontua 3.000€tik 4.000€tara doa.

## Giza-baliabideak

Giza baliabideak erreferentzia egiten dio, beharrezkoak diren langilei. Gure kasuan, 2 informatikari beharko ditugu, gure aplikazioa eta web gunea nola mantendu eta eguneratu dakitenak. Langile bakoitza hainbat arloz arduratuko da, eta proiektua aurrera doan heinean langile gehiago kontratatuko ditugu beharrezkoa bada. Aipatu behar da, halaber, udaletxe, emakumeen etxe eta beste informatika-enprekin elkarlanean arituko garela baina ez direla kontratatuko. Eta gure egoeraz hitz egiten badugu lana zati berdinetan banatuko dugu, hau da, denak berdina egingo dugu desberdintasunak ez egoteko. Gure ardura nagusia, administrazioa, kudeaketa eta kanpo harremanak izango dira. Administrazioa eta diruaren kudeaketa Maialen Martin eta Olatz Ibarzabalen esku egongo dira, kanpo harremanetan berriz, Naia Malmiercak, Maider Arnaizek eta Irati Miñonek kudeatuko dituzte. Egunero lan egingo dugu, emailak erantzuten gure etxeetatik edo deiak egiten hornitzaileekin. Adibidez igandeetan postua jartzen dugunean bostak egongo gara guztiak laguntzeko prest.



## **Finantza-baliabideak**

Proiektu hau aurrera eramateko hasieran bakoitzak 2.000€-ko inbertsioa egingo du, 10.000€ lortuz. Hortaz gain, 10.000€-ko mailegua eskatuko diogu bankuari, kostuak gora eginez gero babes ekonomikoa izateko.